



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/16

Iraunkortasuneko diputatuak modu positiboan baloratu dituzte 2017an birziklatzearen arloan Bizkaian lortu ziran emaitzak

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Diputatu andreak, igaz Bizkaiko Lurraldean birziklatzearen arloan lortutako emaitzen balantze positiboa egin dau gaur goizean, jagokon batzordearen aurrean. Agerraldi horrek, Talde Mistoak bultzatutako agerraldi eskariari erantzuten deutso. Bertan, birziklatze-tasek 2017an izan eben bilakaerea eta Bizkaiko birziklatzearen industria bultzatzeko estrategiaren eta neurrien barri emoteko eskatzen jakon Foru arduradunari.

Iraunkortasun Saileko Foru arduradunak orain hilebete datu horreek aurkeztu ebazan arren, 2017an arlo horretan lortutako datuen balantze orokorra egin dau. Horreen artean, birziklatzeko batuketara selektiboaren tasea %4,65 igon dala azpimarratu dau, holan, gure lurraldean tratatu ziran hondakinen tasea %48,43ra helduz. Diputatu andreak azaldu dauenez, datu horrek gero eta gehiago hurbiltzen dau Bizkaia Estaduko arautegiak 2020rako ezarri dauen helburura, hau da, %50era. Foru erakundearen beste helburuetako bat hondakinen murrizketa eta zero isurkin gordina lortzea da. Lehenengo kasuan, 2017an, %2,61eko murrizketa lortu zan, eta Bizkaiko hondakin gordinari jagokonez, oraindino %1,88an dagola esan behar da.

Diputatuak adierazo dauenez, hondakinen kudeaketa horrek “oso leku garrantzitsua beteten dau ekonomia zirkularrean”, izan be, “hondakinen hierarkia indarrean jarten dan modua zehazten dau”. “Birziklatze tasa altuak ekarriko leukezan” hondakinen hierarkia hori holan ordenetan da: prebentzioa; barriro erabilteko prestetia; birziklatzea; bestelango balorizazioa; eta deuseztapena. Holan, Aldundiko arduradunak kontzientiazino ekintzak, garbiguneak edo hondakin handietarako Berziklatu planteatu azpimarratu ditu, hierarkia hori bete ahal izateko ekintza nagusi moduan.

Erantzunen txandan, Talde Mistoko ordezkariak hondakinen tratamenduan espezializatuak industriaren falte azpimarratu dau. Talde Popularra, barriz, emondako datuak azaldu agertu da. Gaur aurkeztutako datuen artean batzuk “txirriak” egiten deusiela adierazo dauen Podemos Bizkaia eta EH Bilduk, euren aldetik, kontzientiazino kanpainak birziklatzera zuzenduta egotea kritikatu dabe, hondakinak murriztera zuzenduta egon beharrean. Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak, bere aldetik, konpostatzea urten daiten bultzatzea proposatu dau, hori erabilten daben enpresei begiratuta, eta batzordekide jeltzaleak, barriz, “danok alkarregaz pedalei emoten jarraitzeko” konbitea luzatu deutse talde guztiei.

SAGUZARREN PRESENTZIA ERREKATXUKO KOBAZULOAN

Elena Unzueta diputatuak beste agerraldi eskari bati be erantzun deutso, oraingo honetan Podemos Bizkaia taldeak egindakoari, Ignacio Garin UPV – EHUko ikerlariak egindako txostenaren inguruan, hain zuzen be. Txosten horretan adierazoten danez, Errekatzuko kobazuloan (Mundaka) bost saguzar mota dagozala egiaztatu ahal izan da, eta horreetatik

lau babestutako espezieen katalogoan jasota dagoz. Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera eroango dituan neurrien ganeko interesa erakutsi dau, gaur egun eraikinak eregiten ari diralako kobazulotik gertu, eta obra horreek eragina euki daikelako bertan. Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, dokumentu hori, mehatxatutako espezieen kudeaketa planak idazteaz arduratzen dan eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek osatzen daben Batzordera eroango da, bertan baloretako eta emon beharreko pausuak emoteko. Holan, talde guztiak bat etorri dira gai hori ahalik eta arinen konpondu behar dala esatean.

ONETSI EZ DIRAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Eguneko gai zerrendea, onetsi ez diran Arauz Bestekeko Proposamen bigaz osatu da. Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen lehenengoan Bizkaiko hondartzetan aparketako egoten diran arazoan ganeko konponbidea bilatzeko eskatzen jakon Foru Aldundiari. Ekimen horrek EH Bildu taldearen aldeko eretxia baino ez dau jaso, eta Foru Gobernua eusten daben taldeek ez dabe onartu, Foru Erakundeak horretarako eskumenik ez daukala esanez. Bozketan, Talde Popularra eta Talde Mistoaren abstenidu egin dira.

Bigarren ekimenak, Talde Mistoarenak, 2019tik aurrera bisoi europarraren babeserako LIFE+ programa barria bultzatzeko eskatzen eban. Oposizionoko taldeak alde agertu diran arren, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek ez dabe onetsi, urte honetako programari esker lortu diran datuak baloretako urtea bukatu arte itxoin behar dala esanez.

NOTA DE PRENSA

16/05/18

La diputada de Sostenibilidad valora positivamente los resultados obtenidos en 2017 en el ámbito del reciclaje en Bizkaia

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha realizado esta mañana ante la Comisión correspondiente un balance positivo de los resultados obtenidos el pasado año en el ámbito del reciclaje en el Territorio de Bizkaia. Esta comparecencia responde a una solicitud impulsada por el Grupo Mixto en la que le requería a la responsable foral que detallara la evolución de las tasas de reciclaje durante 2017 y la estrategia y medidas para impulsar la industria del reciclaje en Bizkaia.

Si bien la responsable foral del Departamento de Sostenibilidad ya presentó estos datos hace un mes, ha realizado un balance general de los datos obtenidos en 2017 en este ámbito. Entre ellos ha destacado el crecimiento del 4,65% de la tasa de recogida selectiva para reciclaje, situando de esta manera en el 48,43% de los residuos que se trataron en nuestro territorio. Este dato, según ha explicado, acerca Bizkaia cada vez más al objetivo de alcanzar el 50% en 2020 impuesto por la normativa estatal. Otros de los objetivos del ente foral son la reducción de residuos y el vertido crudo cero. En el primer caso en 2017 se logró una disminución del 2,61%, mientras que el residuo crudo depositado en Bizkaia aún se encuentra en el 1,88%.

Esta gestión de residuos, según ha manifestado la diputada, “desempeña un papel importante en la economía circular” puesto que “determina la manera en la que se pone en práctica la jerarquía de residuos”. Esta jerarquía de residuos, que “daría a lugar a altas tasas de reciclado”, se ordena de la siguiente manera: prevención; preparación para su reutilización; reciclado; otro tipo de valorización; y la eliminación. En este sentido, la responsable foral ha destacado las acciones de concienciación, los garbigunes o la planta Berziklatu para residuos voluminosos como acciones principales para cumplir esa jerarquía.

En el turno de réplica el representante del Grupo Mixto ha incidido en la carencia de industrias especializadas en el tratamiento de residuos. Grupo Popular, sin embargo se ha mostrado de acuerdo con los datos ofrecidos. Sin embargo tanto el grupo Podemos Bizkaia, el cual ha manifestado que le “chirrían” algunos de los datos hoy expuestos, como EH Bildu han criticado que las campañas de concienciación se dirijan al reciclaje y no directamente a la reducción de residuos. Por su parte el representante de Socialistas Vascos ha propuesto impulsar la salida del compostaje de cara a las empresas que hacen uso de él, mientras que la apoderada nacionalistas ha invitado a todos los grupos a “seguir pedaleando todos juntos”.

PRESENCIA DE MURCIELAGOS EN LA CUEVA DE ERREKATXU

La diputada Elena Unzueta ha respondido a una segunda solicitud de comparecencia, esta vez de Podemos Bizkaia, en relación al informe realizado por el investigador de la UPV

– EHU, Ignacio Garin, que certifica la presencia de cinco tipos de murciélago en la Cueva de Errekatxu (Mundaka), de las cuales cuatro se encuentran recogidas en el catálogo de especies protegidas. La apoderada de Podemos Bizkaia se ha interesado en este sentido sobre las medidas que la Diputación de Bizkaia va a llevar a cabo puesto que actualmente se están construyendo edificios en las inmediaciones de la cueva y podría tener consecuencias directas en la misma. La responsable foral ha explicado que este documento se trasladará a la Comisión conformada por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales encargada de redactar los planes de gestión de especies amenazadas para su valoración y la ejecución de los pasos pertinentes. En este sentido todos los grupos han coincidido en la necesidad de que el asunto se resuelva con la mayor celeridad posible.

PROPOSICIONES NO DE NORMA RECHAZAS

El orden del día se ha completado con dos Propositiones No de Norma rechazadas. La primera de ellas, de Podemos Bizkaia, instaba a la Diputación Foral a que buscara soluciones a la problemática de los aparcamientos en las playas de Bizkaia. Una iniciativa que únicamente ha contado con el apoyo de EH Bildu y que ha sido rechazada por los grupos que sustentan al Gobierno Foral aludiendo a una falta de competencias por parte del ente foral. La votación se ha completado con la abstención del Grupo Popular y Grupo Mixto.

La segunda de las iniciativas, esta vez de Grupo Mixto, solicitaba a la Diputación impulsar un nuevo programa LIFE+ a partir de 2019 para la protección del visón europeo. A pesar de contar con el apoyo de los grupos de la oposición, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han acabado por rechazarla argumentando que es necesario esperar a final de año para valorar los datos obtenidos gracias al programa de este año.